



3 GIZARTEA

Zabaleta auzoan Udazken festa ospatuko dute gaur

Antonio Eleizegiren erlezaintzari buruzko hitzaldia eta sardina jana antolatu dituzte gaur Zabaleta auzoan udazkenari lagunarteko giro ederrean ongi etorria emateko. 19:30etatik aurrera festa giroa izango da nagusi auzoko plazan Zabaleta Auzolan batzordeak antolatuta. Lehenik hitzaldia egingo da eta ondoren, sardina jana.

4-5 MARATOIA

Zortzikoteko kide beterano eta berriekin solasean

Oholtza gainean 40 ordu egitea da zortzikoteko kideen lana. Egia da ordu hauetan lo pixkat egiteko aukera izango dutela baina oinarrian ekintza guztien jarraipena egitea da euren lana. Zortzikoteko kideen hautaketa ez da nolana hikoia, batzuk beteranoak dira lan hauetan eta beste batzuk ordea lehen aldian izango dute oholtzan. Bi ikuspegiak ezagutzeko tartea hartu dugu Joxe Mari Agirretxe eta Rebeka Garces beteranoak eta Enara leregi eta Bea Egizabal hasiberriekin.



Pertsona adinduen ohoretan

Asteburuan Zaharren omenaldiko ekitaldi nagusiak izango dira

Lasarte-Oriako Udalak lagunduta, Biyak Bat elkarteak antolatutako Zaharren omenaldiko egitaraua aurrera doa. Asteazken zehar, txapelketak, magia, bakkarrizketa,... izan dituzte eta ekintzak ez dira amaitu, asteburuan ekitaldi nagusiak ospatuko dira.

Astelehenean hasi ziren ospakizunak Biyak Bat elkarteak. Lehen txapelketak burutu eta lehen sariak banatu zituzten, mus, toka, igel eta potean.

Igela eta tokan Francisco Gonzalez izan da irabazlea, emakumeen toka lehiaketan Adela Manso lehena eta potean Diego Roman. 4 erregeetako mus txapelketan, berriz, Manuel Belartieta eta Pedro Martinez gailendu dira.

Sariak Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzueta zinegotziak eta Mertxe Galdos Biyak Bateko lehendakariak banatu zituzten.

Bakarrizketa eta magia

Asteartean, berriz, magia eta umoreaz gozatu ahal izan zuten Biyak Bateko egoitzan.

Sun magoak hainbat trikimailu egin zituen eta hauek egiteko elkarteak hainbat bazkide atera zituen oholtzara.

Eta truku eta truku artean Adolfo Perez herritarrek bakarrizketa bat eskaini zuen Kontu kontari aritu zen eta kantatu ere egin zuen. Gainera oso hurbileko gauzetaz



Txapelketetako sariak Biyak Bat elkarteak ordezkari eta Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzueta zinegotziarekin.

aritu zen, herriko kontuak hartu baitzituen hizpide.

Gimnasia eta aerobika

Elkarteko kideak izan ziren protagonistak asteazkenean.

Okendo plazan sasoi betean daudela erakutsi zuten gimnasia eta aerobik erakustaldiekin.

Herritar ugari bildu zen plazan hauen ariketak ikustera.



Biyak Bat elkarteak kideek gimnasiako eta aerobikoko ariketak ederki egin zituzten.

Antzerkia eta dantza

Atzo, Semblante Andaluz-en emanaldia izan zen Manuel Lekuona kultur-etxean eta gaur berriz, herriko Lan eta Lan taldeak berriro ere "Melocotón en Almibar" antzezlan eskainiko du Manuel Lekuonan.

Asteburuan ekintza gehiago

Aste honetako ekintza nagusiak, noski asteburuan burutuko dira.

Larunbata goizean bikotekako ibilaldi neurtua izango dute herriko kaleetan barrena eta arratsaldean dantza txapelketa.

Igande goizean meza, Biyak Bat-eko abesbatza eta Zero Sette akordeoi orkestraren emanaldia kultur etxean eta Michelingo kirol gunean bazkari eta dantzaldia.

Astelehenean, berriz, Biyak Bat elkarteak 34. urteurren ospakizunak dituzte.

Goizean, Ama Brigitarren komentuan meza eta jarraian luntxa izango dute.

Arratsaldean, berriz, urrezko ezteiak egiten dituzten bikoteei oroigarriak emango zaizkie eta afari-meriendaren ostean, dantzaldia izango dute.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 · komertzial instalazioak · beira bikoitza
 · segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
 · ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ALBA
ARROPA DENDA

KOOKAI
 NAFNAF
 VERSE

Etorri gure Udazkenerako arropa ikustera!

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

Neure kabuz



Asier Odriozola

Erreskatea

Garaiekin doaz arropa mota batzuk. Sasoi batean hankape zabalako galtzak edonoren soinean ikusten ziren. Berdin kolore biziko alkandorak edo bizar trinko askoak gizasemeen aurpegietan.

Modak dira horiek eta moda diren neurrian etorri egiten dira baina baita joan ere, nahiz, azkenaldian, joandako modak berriz ere modan jarri. Hitz joko geratu zait atzeko hori. Eta hain juxtu, hitz baten bueltako hausnarketa egin nahiko nuke.

Aspaldian, modan jarritakoa dugu "erreskate" hitza. Hori entzutean istripuak etortzen zaizkigu gogora: dela autoarekin direnetan suhiltzaileek egiten dituztenak edo berdin mendi istripu batean ertzaintzaren helikopteroz egindakoak. Azken horiek ere ordaindu egin behar dira gainera, azkenaldian.

Ekonomiaren itzaleko erreskatea ordea ez da istripua. Jarrera, politika eta ikuspegi baten ondorio da. Politikoez uste izan dute diruaren makina ez zela sekula geratuko eta herriak zorpeta ere ordainduko zela noizbait, etxegintzaren etengabeko hazkundera inoiz etengo ez balitz bezala. Eta ez politikoez bakarrik. Denok pentsatu izan dugu pixka bat hori eta eguraldi ona eskatzen zuenaren alegantzia berarekin eskatzen genuen dirua.

Amaitu dira ordea txorakeriak, eta orain mehatxu bat dugu guztiok bueltaka-bueltaka: erreskatea, garai berriotako mamua.

Eta mamuak mugak dakartzta: gizarte gastuetan besteak beste. Egundoko herrilarietan dirua palakadaka erabili ostean, gizatiago diruditen gastuetarako sosik gabe geratu gara. Ez dago beste erremediorik, daukagunari dagokion moduan egingo diogu aurre baina gera dadila nonbait gertatuaren testigantza gure ondorengoek kontu gehixeago eduki dezaten diru publikoarekin bezela norbere kabuzkoarekin.

Zorion agurrak



Manuel

Zorionak Bigotes! Maitasun handiz zure emazte eta semearen partez! Muxu handi bat!



Eneko

Kandela guztiak itzal ditzakezu? Ala suhiltzaileei deitu behar diet?



Julen eta Xabat

Beste urte bete bat, handitzen eta jatorzen. Zorionak bikote ama eta amatxiren partetik!!!



Ixii eta Patxi

Zorionak bikote zuen zilarrezko ezkontzan! Segi hain pozik eta muxu pila familiarren partetik.



Aiora

Zorionak printzesa, disfrutatu zure 5. urtebetetzean. Muxu pila etxeokoen partetik!



Ane

Zorionak sorgina! Hiru txokolatzezko musu familiarren partetik.



Kiko

Zorionak osaba! Familia guztiaren partetik eta kontuz marrazoen hortzeekin, jajaja.



Ekain

Ongi etorri familia, txokolatzezko muxuak! Amaiur, aitaixo eta amatxo.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Logela alokairuan Manuel Lekuona kultur etxetik gertu. Pertsona arduratsu, ez erretzaila eta lasaia bilatzen da. Interesatu duenak telefono honetara deitu: 698 496114.
- Logela alokairuan Manuel Lekuona kultur etxetik gertu. Pertsona arduratsu, ez erretzaila eta lasaia bilatzen da. Interesatu duenak telefono honetara deitu: 646 756555.
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eskatzen da. Telefonoa: 649526766

Lan-eskariak

- Emakumea eskaintzen da orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak, zein haurrak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 666 708 963

- Ume edo aiton-amonak zaintzen, etxeko edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Doris 943 40 40 15
- Mutil arduratsua eskeintzen da. Seriotasun handikoa edozein lanerako. Telefonoa: 646 756555
- Emakumea lan egiteko prest, orduka garbiketa lanak egiten, zaintzen edo bestela. Patricia 608 643 490
- Emakumea lan egiteko prest, orduka zein bestela garbiketa lanak egiten, aitona-amonen zaintzan. Azucena 674 803 688
- Emakumea eskaintzen da haurrak edo pertsona adinduek zaindu edo etxeko lanak egiteko orduka edo interna moduan lan egiteko. Harremanetarako, 608 131 170.
- Neska gazte euskalduna, prest dago zenbait lan burutzeko: etxeko lanak, ume zaintza,

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

- Unax Ubegun Perez, irailaren 29an.
- Ekain Barrera Genau, irailaren 29an.
- Lucas Navas Lopez, irailaren 23an.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

| | |
|---|------------|
| Ostirala, 5 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 | 943 363549 |
| Larunbata, 6 De Miguel, Kale Nagusia 32 | 943 371151 |
| Igandea, 7 De Miguel, Kale Nagusia 32 | 943 371151 |
| Astelehena, 8 Urbistondo, San Frantzisko 1 | 943 366567 |
| Asteartea, 9 Gil, Kale Nagusia 24 | 943 361529 |
| Asteazkena, 10 De Miguel, Kale Nagusia 32 | 943 371151 |
| Osteguna, 11 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea | 943 361774 |

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucua, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

Larrialdi telefonoak

| | |
|----------------|------------|
| Osasun Zentroa | 943 007960 |
| DYA | 943 464622 |
| Gurutze Gorria | 943 363953 |
| Udalzainak | 943 362442 |
| Erantzintza | 943 288888 |
| SOS Deiak | 112 |

klase partikularrak,....Telf: 685799364

- Emakumea eskaintzen da orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak, zein haurrak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 666 708 963.

Salerosketak

- Hyundai I10 autoa salgai, lau urte eta 16.000 km bakarrik. 666 320 520

Bestelakoak

- Lehen Hezkuntza edo euskarako klase partikularrak emateko prest nago. Irakasle titulua dut. Harremanetarako 630 941 996 zenbakira deitu.
- DBH3 mailako Gizarte eta Natura gaietan laguntza klaseak emango dituen pertsona bat behar da. Harremanetarako 632 133 100 zenbakira deitu.

Txintxarri diruz lagutzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

ZABALETA AUZOA

Udazken festa gaur Zabaletan

Antonio Eleizegi auzotarrak hitzaldia emango du 19:30ean erleei eta Asiako liztorrei buruz

Erlezaintzari buruzko hitzaldia eta sardina jana antolatu dituzte gaur Zabaleta auzoan udazkenari lagunarteko giro ederrean ongi etorria emateko. Beraz 19:30etatik aurrera festa giroa izango da auzoko plazan Zabaleta Auzolan batzordeak antolatuta.

Urtero, hego haizea heldu eta hostoak erortzen hastearrekin batera Udazken Festa egiten dute Zabaleta auzoan. Aurten hitzaldi eta sardina jana egingo dute Antonio Blas plazan.

Hitzaldia auzoan bizi den Zaltzate baserriko Antonio Eleizegi eztigile eta erlazainak emango du 19:30etan "Erleak eta liztorrak" gaiaren inguruan. Ondoren, 21:00 inguruan sardinak erreko dira plazan bertan.

Eztigintza eta erleak

Antonio Eleizegi eztigileak 30 urte daramatza erlezain eta aspaldian kezkatuta dabil Vespa Velutina Asiako liztorra ugaltzen ari delako. "Iaztik hona 10 aldiz gehiago ibili dira, eta agian motz geratzen



Hitzaldiaren ostean sardina jana egingo dute Zabaletako bizilagunek.

ari naiz. Erraketa batekin milaka eta milaka hil ditut, abuztu hasieran hasi eta orain arte egunero egunero aritu naiz horretan, baina hurrengo egunean beste hainbeste ziren. Orduak eman ditut habiaren bila ere, urrutik gabe egongo da baina ez dut aurkitu. Ez da erraza, arbolatan hosto artean eta askotan goiko partean egiten dute eta".

Bere iritziz, martxa honetan erle guztiak galduko dituzte eta pentsatzen ari da agian erleak leku lehorrageotara eramane beharko dituela, Nafarroa aldera edo. "Oso garrantzitsuak dira erleak lan-

dareak polinizatzeko, basoan jada erlerik ez dago barroa xomorroaren erruz, erlazainei esker irauten dute erleak eta polinizazioak ere bai beraz. Arazoa handia da. Frantzia aldean hasi dira erleak leku lehorretara eramaten" kontatu du Eleizegik.

Aurtengo ezta jada potentan jasoa du, urte ona izan da. Eztigintzari buruzko informazio zabal eta erleen inguruko bitxikeriak emango ditu ostiraleko hitzaldian.

Jarraian, plazara hurbiltzen diren auzotar guztiak sardin erreak dastatzeko aukera paregabea izango dute.

SEMBLANTE ANDALUZ

Gaur hasiko du aste kulturala

Semblante Andaluz elkarteak gaur hasiko ditu bere Aste Kulturalaren baitan antolatutako ekintzak. 18:00etan elkartean gozogintza ikastaroa egiteko aukera izango da eta ondoren luntxa bazkide eta udal ordezkariarentzat. Honetan elkartearen historia kontatzen duen bideo emanaldia egingo da.

Larunbatean haurrentzako ekintzak izango dira Golf plazan eguraldiak laguntzen badu. 11:00etan toka txapelketa, 12:00etan tren maketen erakusketa, 13:00etan bazkari herrikoa egingo da eta 16:00 mus eta tute txapelketak. 16:30ean berri, 3 eta 8 urte arteko haurrentzako marrazki lehiaketa izango da Golf plazan, 17:00etan Jalguneko buruhandiak eta ondoren txokolatada egingo da. 19:00etan, O'Club taldeak kontzertua eskainiko du. 21:30ean ikuskizun-afaria izango da "Moito" ikuskizunarekin.

Igandean, 14:00etan bazkaria elkartean bertan eta 18:00etan elkarteko taldeen emanaldiak izango dira.

ANTZERKIA

Kukuka Donostiako Lugaritz aretoan

Euskal Herriko antzerki zaleen elkarteak herri ezberdinetako taldeen emankizunak antolatu ditu urrian zehar. Egitarau horren baitan Kukuka herriko antzerki eta dantza taldearen "Sahara, isiltasunaren ahotsak" Donostiako Antigua auzoko Lugaritz aretoan eskainiko dute urriaren 19an 20:00etan.

Horretaz gain eta emanaldi sortaren barruan, Zabaleta auzoan urriaren 11ean OIartzungo Txirene taldearen "Ogiyik karri etzun semia" antzezlanak ikusi ahal izango da 19:30ean.

PAILAZOAK

Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen DVD berria

Bihar larunbata goizean Villa Mirentxun aurkeztuko dute herriko pailazoez Zazpikoloroaren DVD-a.

Bertan izango dira Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, Anjel Olaran Etiopiako Wukro herriari misiolari eta Etiopia Utopia elkarteko lagunak, Kontxi Aizarna eta Josu Txapartegi "Txapas" Manolo Urbietaren kideak, Londresko Euskal Etxeko ordezkaria, Yanelle Sidokpohou Gizakien Lurra erreportajearen protagonista eta Gizakien Lurra elkarteko ordezkariak eta Bonberenea txarangak.

Erreportajeen laburpenak eskainiko dira eta bertako protagonistek parte hartuko dute hitzez eta kantuz.

GAZTEKLUBA

Gaur hasiko da ikasturte berria

Gazteklubak hasiera emango dio gaur ikasturte berriari. Ostiralean 17:30etatik 19:30era izango da hitzordua ohi bezala. 5 eta 6. mailakoen topalekua Erribera kaleko lokala izango da eta 3. eta 4. mailakoentzat Ola kaleko ludoteka.

Ikasturte honetan arduradunak esan moduan, iazko ildotik jarraituko da ekintza erakargarri eta dibertigarriak burutzen. Horrela postre txapelketa, talde jolasak, bideo emanaldiak eta bizikletaz txangoak antolatuko dira, besteak beste. Gaztekluba dohakoa da eta izen-emateko gaur bertan egin ahal izango da edo aisia@ttakun.com helbidean.

Bestalde, 5, 6 eta 7. urteko haurrak biltzen dituen Amaraun klubak urriaren 9an hasiko du ikasturte. Egun honetan ate ireki jardunaldia izango da eta sukaldaritza tailerra burutuko da. Hitzordua 17:30ean izango da Ola kaleko lokalean.

Honetan izena emateko egunean bertan edo aipatutako helbide elektronikora zuzenduta egin ahal izango da. Tailerra doan dela azpimarratu nahi izan dute antolatzaileek eta haurrak honetan parte hartzea animatzen dituzte.



Konponketak eskatzen ditu PSE-EEK

Goikale 20, 22 eta Nagusia 51, 53 zenbakietako bizilagunen irisgarritasuna erazteko zonaldea konpondu eta antolatzeko plan bat eskatzen du herriko PSE-EEK. Plana mozio batean jasotzen da eta datorren asteko udalbatzarrean eztabaidatua izango dela aurreiratu zuten Jesus Zaballosek.

Loidi-Barrango zonaldearen konponketarekin amaituta, bada Goikale eta Nagusia kaleetako hainbat zenbakietan oraindik txukundu ez den eremua. Oso espaloi estuak dituzte euren etxeetara sartzeko Goikaleko 20 eta 22 zenbakietako bizilagunek baita Nagusia kaleko 51 eta 53 zenbakietako. "Espaloiak estuak izateaz gain kotxeak edozein modutan aparkatuta aurki daitezke eta bizilagunak kexu dira" azaldu zuten Jesus Zaballosek Txus Alonsorekin.

Eremu txikia izan arren lau atarietara sarrera dago hemen



Jesus Zaballos eta Txus Alonsok Goikalen egin zuten agerraldia.

"orain arte ordenazio berezia izan du zonaldeak eta ez da sartu inguruan egin diren konponketa eta berritze planen barruan, udalerrira eratzeko plano gainean auzoen barruan banatu ez zen eremua dugu hau," azaldu zuten Zaballosek.

Hau dela eta honakoa eskatzen duen mozioa aurkeztuko dute: lana burutzeko

Hirigintzako teknikariak zonaldearen irisgarritasuna eta antolamendua hobetzeko proiektua egitea. Proiektua burututa bizilagunei ezagutzera eman eta euren iritzia jasotzea eta azkenik, 2013ko aurrekontuetan lanak egiteko beharrezkoa den diru partida aurreikustea. Antolaketa berriarekin seinalizazioa ere hobetzeko eskatzen da.

LABURRAK.-

ARETO-FUTBOLA.-

Santi eta Martin bola-joko oroimenezkoa

Ostadar SKT-ko bola-joko sailak beste urte batez, Santi Garcia eta Martin Egaña herriarren omenezko IX. bola-joko txapelketa antolatatu du igandean, Michelingo Udal Kirol guneko bolatokiak.

Bi maila izango dira, hots, gizonetzakoak eta emakumezakoak. Izena ematea irekia egongo da igandean 10:00etatik 11:30era.

Master atala lanean

Buruntzaldea IKTKo master atalak astehenean hasi zituen entrenamenduak.

Taldeak ordutegi zabala eskaintzen du astehena, asteazkena eta ostiraletan, 7:10-8:10, 16:15-17:15 eta 20:15-21:15.

Zalantzarik argitu nahi izanez gero www.buruntzaldeaikt.blogspot.com orrialdean informazio guztia eskura daiteke edo arratsalde 18:00ak eta 21:00ak bitartean Lasarte-Oriako igarilekuan Borjagatik gal-detuta.

OHARRAK.-

Errugby eskolako entrenamenduak

Beltzak Ostadar Jalai Errugby eskolako antolatzaileek jakitera eman dutenez, kadete, infantil federatua eta eskolarteko infantilak gaur arratsaldean 17:45ean geratu dira Micheline Zarautzera entrenatzerara joateko.

Igandean, berriz, maila guztiak, kadeteak izan ezik, entrenamendua izango dute Micheline 9:00etatik aurrera.

ISU Leihoak taldea garaile Azpeitian

Lasarte-Oriako taldearen helburua Gipuzkoako Ligan lau lehenen artean egotea da

Areto-futboleko Aldaz H.k. taldeak denboraldia hasi zuen lehengo asteburuan eta ederki hasi gainera, 1-3 garaitu baitzuen Zurt taberna taldea. Aurten Gipuzkoako ligan dago, berriro ere. Hala ere, bere helburua lehenengo postuetan egotea da eta erronkari talde berriarekin egingo dio aurre.

Nerea EIZAGIRRE

Gipuzkoako Ligako aurtengo lehen jardunaldia jokatu zen asteburuan eta Lasarte-Oriak badu berriro ere ordezkaria maila honetan, ISU Leihoak.

ISU Leihoak taldeko entrenatzaileak Eneko Molinak azaldu digunez, iaz Euskal Ligan lehiatzen egon ostean, aurtun arrazoiz ekonomikoak eta pertsonalak direla eta, Gipuzkoako Ligara bueltatzea erabaki zuen taldeak.

Maila hau ezaguna du eta Molinaren itxaropena urte serioa egitea da, "lau lehenen artean sartu edo gertu egotea, behintzat".

Entrenatzaileak argi du urte zaila izango dela hau eta duela bi urte egindakoa denboraldia berdintzea zail izango duela.

Izan ere, "taldea aldatu da, ia berrieta da", ISU Leihoak-ek



ISU Leihoak taldeak talde berrituarekin ekin dio aurtengo Gipuzkoako Ligako lehiari.

TXEMA VALLES

aurkezten duena. "4 edo 5 jokalarik utzi dute taldea aurtenu eta 3 berri ditugu," azaldu du Molinak.

Gainera, mailan talde berri asko daudela aipatu du, 6 edo 7 eta erreferentzia gutxi ditu batzuenak. Hala ere, Laskorain eta Oiartzun aipatzen ditu sailkapeneko lehen postuetarako.

Garaipena Azpeitian

Gauzak honela, denboraldiko lehen partidari aurre egin zion ISU Leihoak larunbatean.

Honetan Zurt taberna izan zuen aurrez aurre eta 1 eta 3 irabazi zion talde azpeitiarrari.

Eneko Molinak azaldu digunez, "bagekien partida zaila izango zela, duela bi urte irabazi gintuen taldea da

Zurt taberna. Lehenengo zatia eskasa izan zen eta bigarrenean ongi jokatu zuen taldeak".

Hala ere, "taldea osatzeko asko falta da oraindik. Jokalari berriak taldera ohitu behar dira" onartu du ISU Leihoak-ek entrenatzaileak.

Partida zaila

Aste honetan, Aretxabaleta taldea du aurrez aurre. Aurtun igo den taldea da eta Eneko Molinak erreferentziarik ez duela aipatu digu.

Baina "Euskaldunari 4-1 irabazi zion", beraz, partida zaila izango dela iragarri du.

Aldaz-ek etxean galduta

Bestalde, herriko beste taldeak, Aldaz H.K.-k etxean

Bilbo taldearen aurka galdu zuen, 6-8.

Nahiz eta Bilbo taldea gaztea izan, indararekin etorri zen norgehiagokara eta partida interesgarria ikusi zen kiroldegiko kantxan.

Bilbotarrek erakutsitako sistema eta ezarritako erritmoak ez zion Lasarte-Oriako hain jokoak egiten utzi. Hala ere, bi etxean arriskua handia izan zen.

Azkenean, bilbotarrak izan ziren lehenak markagailura tiantoa igotzen.

Herriarrek ederki erantzun zuten eta binako berdinketakir iritsi zen atsedendira.

Bigarren denboran Aldaz markagailuan atzetik joan zen eta ezin izan zion partidari buelta eman.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 06
Urnieta, 10:30ean
Urnieta-Ostadar I. Kadetea
Alustiza, Segura, 15:30ean
Segura-Ostadar I. Erregionala
San Miguel, Mutriku, 15:30ean
Burumendi-Ostadar
Jubenilen Ohorezko maila
Matigoxotegi, Donostia, 15:30ean
Internazional-Ostadar
I. Jubenila
Harane, 17:30ean
Usurbil-Ostadar
Emakumezkoen maila

Igandea 07

Harane, 09:00etan
Ostadar-Añorga Infantil Txikia
Zubieta, 09:30ean
Texas Lasarte-Ortiz-erri
I. Erregionala

Zubieta, 09:30ean
Ostadar-Beasain
Infantilen Ohorezko maila

Harane, 10:30ean
Ostadar-Antiguoko
Kadeten Ohorezko maila, Euskal Liga

Zubieta, 11:30ean
Texas Lasarte-Ortiz-erri
I. Kadetea
Harane, 16:00etan
Ostadar-Tolosa
Erregional Ohorezko maila

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 06
Kiroldegia, 16:00etan
ISU Leihoak-Aretxabaleta
Gipuzkoako Liga
Aldiri kiroldegia, Urretxu, 18:00etan
Goierri-Aldaz H.K.
Nazional III. maila

JUDO

Larunbata 06-Igandea 07
Paue, egun osoa
LOKEko kadete mailako judokak
Paueko 15. torneoan izango dira.

PILOTA

Ostirala 05
Zegama, 19:00etan
Tartaloetxe-Intza
Eskuz binaka, I. jubenila

Larunbata 06

Beotibar, Tolosa, 10:00etan
Aurrera Saiaz-Intza2
Eskuz binaka, jubenila
Michelingo pilotalekua, 16:00etan
Intza I-Zazpi Iturri
Eskuz binaka, jubenila
Michelingo pilotalekua, 16:00etan
Intza-Añorga Eskuz binaka, II. jubenila

Igandea 07

Astigarra, 11:00etan
Mundarro-Intza
Eskuz binaka, II. nagusia

ERRUGBYA

Larunbata 06
Asti, Zarautz, 12:30etan
Beltzak Ostadar Jalai-Getxo
Euskal Liga, kadetea

ATLETISMOA

Larunbata 06
Zumaia, 17:00etan
Herriko hainbat atleta XVI. Zakila
Bira proban izango dira lehiak.

Igandea 07

Donostia, 10:00etan
Herriko hainbat atletek "5 milia

buruko osasunaren alde" proban parte hartuko dute.

Orreaga, 11:00etan

Herriko hainbat atleta Done Jakue bidean zehar egiten den Orreaga-Zubiri lasterketan izango dira.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 07
Biyak Bat, 08:30ean
Ostadar SKT-ko zikloturistik
irteera dute Berastegira.

BOLA-JOKO

Igandea 07
Michelingo bolatokia, 10:00etan
Ostadar SKT-ko bola-joko ataleko jokalariek Santi Garcia eta Martin Egaña Bola IX. omenaldian parte hartuko dute.

— Agenda —

Ostirala 5, 21:00etan, Arrieskalleta elkarte



Hitza eta musika lotuz

"Hitzarekin jolasean musikaren koloretan" bertso afaria antolatu dute Arrieskalleta elkarteak, Ttakun kultur elkarteak eta Lasarte-Oriako Bertso eskolak. Jon Maia eta Uxue Alberdi bertsolariak eta Eñaut Elorrieta musikaria izango dira honetan. Afariko tiketak Jalgi tabernan daude salgai, 25 eurotan.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Astelehena 1-Astelehena 15
 Medicus Mundi elkartearen argazki erakusketa ikusgai izango da.

Bestelakoa

LANDABERRI BHI
Ostirala 5, 18:00etan
 Dinbi Banda batukadak entsegu irekia egingo du.

OKENDO PLAZA
Ostirala 5, 19:00etan
 Amalur Trikiti eta pandero eskolak ikas-turte hasierako jaialdia egingo du.

ZABALETA AUZOA
Ostirala 5, 19:00etatik aurrera
 Zabaleta auzolanek antolatuta, Udazken festa izango da. "Erleak eta Liztorrak" hitzaldia eskainiko du Antonio Eleizegik eta jarraian, sardina jana izango da.

SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEA
Ostirala 5-Igandea 7
 Semblante Andaluz elkarteak X. Aste kulturala antolatu du.

Ostirala 5
 Gozogintza ikastaroa, udal ordezkari eta bazkidekin luntxa eta bideo emanaldia.

Larunbata 6
 Txapelketak, umeentzako txokolatada, buruhandiak, tren maketa erakusketa, musika eta umorea.

Igandea 7
 Herri bazkaria eta elkarteko taldeen emanaldia.



Lasarte-Oria

Zinea

Igandea 7, 17:00etan
 Haurren zinea atalaren barruan, "Brave" marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro.



Igandea 7, 19:00etan
 Helduen zinea atalaren barruan, Oken-do Zinema taldearen eskutik, "The Artist" filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 5,50 euro; internetez, 5 euro.

Musika

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 6, 19:30ean
 Zero Sette akordeoi orkestrak antolatutako Lasarte-Oria IX. Akordeoi jaialdia. Herriko orkestraz gain, Isidro Larrañaga akordeoi orkestrak, ILLUMBE akordeoi orkestrak eta Lasarte-Oriako Udal Musika eskolako musikariek parte hartuko

dute. Sarrerak leihatilan, 3,20 euro; internetez, 3 euro.



Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Urria osoa
 Sancho Pereg artistaren margoak ikusgai izango dira.

— Herritarren txokoa —

Euskararen VIII. Maratoiko kamisetak salgai

Urria gerturatzen doa eta dagoneko Euskararen Maratoirako kamisetak salgai jarri dira Ttakunen. Zortzigarren edizio honetako leloa Bihotzetik Plazara eta irudiak apaintzen ditu kamisetak.

Helduentzako eta haurrentzako neurritan atera dira kamisetak. Helduenak 15 eurotan daude eskuragarri eta umeenak berriz 10 eurotan.

Galiziara bidai

Biyak Bat elkarteak VIBO bidai agentziaren laguntzarekin Galiziara bidai antolatu du, urriaren 14tik 20ra.

Bidai honetan, besteak beste, Santiago, Vigo, O Grove edo La Toja bisitatuko dituztela aipatu digute elkarteko lagunek.

Bidai honetaz gozatzeko, elkarteko bazkideek 325 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 355 euro.

Izen-emateko edo informazio gehiago eskuratzeko elkarteko bulegora hurbildu behar dira interesatuak, gozietan 10:30etik 12:30era.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, lau betaurreko graduatuak, eguzkitako betaurrekoak, hiru mugikor, txandaleko jaka bat eta txirrinda bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Iradokizunak Udalarri

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du. Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Ildatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

— Hemeroteka —

Duela 1025 ale

Lasarte-Oriako Udalak Michelin kiroldegia erosi zuela argitaratu genuen, 1994ko urrian. Udalak 350 milio pezeta ordaindu behar zizkien Michelin enpresari.

Era honetara, herritarroi kirola egiteko instalazio irekiak eskaintzen zizkien. 120 kotxeentzako aparkamentua, jangela eta ondo-ko eraikuntza, kiroldegi itxia, pilotalekua, futbol-zelaia, tenis zelaia, bolatokia eta eskubaloi eta saskibaloi pisten jabe egin zen Udala.

Ana Urchuegia alkate ohiak eta Michelin enpresak hamar hilabete eman zituzten erosketa honen nondik norakoak zehazteko. "Negoziaketak nik egin ditut Michelin enpresarekin. Inork ez zekien ezer, ez oposizioko alderdiek, ez nire alderdiak. Horren arrazoia: gai honetan baldintza nagusia zuhurtsuna izatea," azaldu zuen alkateak.

Era berean, Udalaren proiektuak aurreratu zituen "atletismoko pista modularra egitea izango da hurrengo pausoa. Epe motzean ere, Oria ibaira joango den arrapala egin nahi dut, etorkizunean uretako kirolak egin ahal izateko, bertan".

Orrialde berean, oposizioko alderdiek negoziaketan inguruan egon zen isiltasuna salatzen zuten eta horrelako erabakiak guztien artean hartu behar zirela adierazten zuten.



Jon Eskisabel Kazetaria

“Kultur ezjakintasun handia dago”

- Euskal kantagintzari buruzko liburuxka egin du kazetariak Etxepare institutuarentzat
- Pop, folk eta rock arloko bakarleri eta taldeen azken 50 urteko bilakaera jaso du

Euskal kultur adierazpen ezberdinei buruz Etxepare Euskal Institutuak argitaratu dituen hamar liburuxkatarako bat, hain juxtu kantagintza modernoari dagokiona, Jon Eskisabel lasarteoriatarrek egin du. Ez dago liburua erosterik, Etxeparek berak erabiliko ditu han eta hemen euskal kulturaren berri emateko, baina azken 50 urtetako euskal kantagintzaren historia ezagutu nahi duenak aukera dauka, www.etxepareinstitutua.net webgunean irakurtzeko moduan jarri dituzte eta lan guztiak PDF formatuan.

Jon ALTUNA IZA

A taun-en bizi da Jon Eskisabel kazetari lasarteoriatarra, baina tarteka etortzen da herrira eta bisitatako bat baliatu du berarekin elkartu eta zertan diharduen jakiteko.

Etxepare Institutuak duela gutxi aurkeztu duen euskal kulturari buruzko bilduman kantagintzari buruzko liburuxka egin du Eskisabelek, euskal musikaren inguruko informazio oro jasotzen duen badok.info web orrialdearen arduraduna ere bada, tarteka, disko berriak ateratzen direnean, bertako edukiak gaurkotzen ditu, eta noizbehinka euskal musikariaren biografiak gehitu, eta bestalde, langabezi garaia aprobeztatzen ari da zinemara joateko, ingelesa ikasteko edota irakurtzeko.

www.etxepareinstitutua.com helbidean argitalpenak atalean ikusi daiteke kantagintzari buruzko Eskisabelen lana.

Zer nabarmenduko zenuke liburuxka honetaz?

Etxepare institutuak duela pare bat urte egindako enkargua, atzerrian zabaltzeko bilduma bat da, euskal kulturaren ikuspegia kanpokoek hemen egiten dena ezagutu dezaten.

Nahi zutenaren pautak batzuek eman eta bakoitzak nahi duena egin du. Nik gida liburu nahiko estandarra egin dut: 60ko hamarkadatik gaur egun arte kantagintzak estilo aldetik Euskal Herrian izan duen eboluzioa, bere testuinguru soziopolitikoan kokatu, artista nabarmenenen jorak eta historia aipatu eta horietatik 25 bat kantari edo talderen biografia laburra eta diskografia hautatua, k a n p o k o jendearentzat sarrera gisa edo.

Musikak badauka beste adierazpideek ez daukaten abantaila bat, pista batzuek emanez edo disko bat gomendatuz gero, gaur egun posible da internet-en bidez ezagutzea.

Oso estandarra egin dut, oso objektiboa eta neutroa, nahiz eta gauza guztietan hor egoten den norberaren eskua: ez da nire historia, ez nire ikuspegia, eta hor aukeratu diren 25 artistak ere ez dira nire gustukoena ere.



Elkarrizketa osoa txintxarri.info webgunean

Zenbat denborako lana izan zen?

Denbora gutxi. Bi hilabete baino gehiago ez, 2011ko urtarrilean. Nik lan handia aurreratu neukan badok.info orrialdean. Hor dauden eduki asko han daude garatuagoak. la buruz nekizkien.

Hiru hizkuntzatan dago, kanpotarrei begira egina, beraz...

Bai, Etxepare Institutuak sare moduko bat sortua du atzerrian, unibertsitatetan euskal kulturari buruzko ikastaroak ematen dituzte, uste dut 25 toki ezberdinetan, besteak beste, Ingalaterran, Alemanian eta AEBetan.

Kanpora begira egina dagoen arren, horrek ez du esan nahi barrurako balio ez duenik, nire ustez bilduma horrek badu zentzurik eta beharrezkoak dira Euskal Herrian. Oro har ezjakintasun handia dago musikaz eta euskal kulturaz.

Salgai jarriko balitz erantzun ona izango al luke?

Ez dakit, ez dut uste. Nik desinteresa handia ikusten dut gaur egun, oro har, kulturarekiko, ez bada kultur ebentua handietan; masak mugitzen dituzten horietan ikusten da jendea eta pentsa daite-

ke jendeak kultur interesa duela, baina oro har desinteresa handia ikusten dut.

Kontzertu handiek, Donostiako zinemaldiak eta horrelakoek dute arrakasta, ezta?

Bai hori saldu digute, gaur egun, gainera kultura entretenimenduari lotzen dugu eta harremanetarako erabiltzen da, baina ez modu natural batean. Ez da ikusitako kontzertu edo pelikulez hitz egiten eta hauek ez dute zaletasuna edo gauza berriak ikusteko interesik pizten. Jendea lagunekin egotera, edatera eta ondo pasatzera doa. Desinteresa handia dago.

Zer da badok.info?

Euskal kantagintzari buruzko ataria da, Berria egunkariaren barruan sortu eta duela hiru urte zabaldu zen interneten. Kantsultarako datu basea da. Informazio aldetik zegoen hutsune bat betetzeko sortu zen. Esaterako Mikel Laboak ez dauka web gunerik, ez bada badok.infon daukan atala, ez Xabier Letek, ez Errobik, ez Ange Duhaldek... Badok.info 60. hamarkadatik gaur egun arte Euskal Herrian kantagintzak izan duen bilakaera kontatzen du hamarkadaz hamarkada, 200 bat biografia daude bere diskografia, kantu, letra, kantuen egile eta parte hartu dutenen musikariaren zerrendak, argazkiak... eta 400 kantu baino gehiago entzuteko moduan.

inBEG **endentzia**

EKITALDI NAZIONALA
Urriak 13, 17:30ean BARAKALDON

BOZKATU **ehbildu**

EUROKO LEDEBILTZARRERAKO HAUTESKUR
2012
ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO